



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

0. AZALA

Azala lantzeko, zera egin dezakezue:

Esan haurrari elkarrekin begiratuko diozuela marrazkiari eta aztertuko duzuela, eta begirada bat eman ostean istorio bat asmatu beharko duela bakoitzak.

Asmatzen dituzuen istorioak bata besteari kontatu beharko dizkiozue.

Amaitzean, azalean ageri den esaldia irakurriko diozu haurrari, eta horren inguruan hitz egin dezakezue denboratxo batez.


1. AURKIBIDEA

Aurkibidean, barkamenaren inguruan, esaldi polit askoa erakusten digu Miren Agur Meabek.

Gure proposamena da, esaldia haurrari irakurraraztea, eta, irakurtzen amaitzen duenean, zer ulertu edo iritsi zaion jakitera ematea. Eman garrantzia eta indarra esaten duen horri... Baliteke, agian, zentzua ez ulertzea guztiz, baina, seguru, esan duen horrek, beretzat, behintzat, logika bat duela; beraz, entzun eta jaso esandako hori.

Ondoren, adierazi berari esaldiak zuri zer esaten dizun, eta hitz egin horren inguruan.

Bukatzean, esan aurkibidearen zerrendatxoa irakurriko duzuela. Galdetu ea nola irakurri nahi duen: txandaka, saltoka, berak bakarrik, kantuan...



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

2. LAGUN

Lagunen istorioa ere barkamenarekin loturik dago. Zer gertatu zaio *Laguni*?

Istoria laburra da; beraz, zera proposatzen dizuegu: zuetariko batek irakur dezake, baina besteak ez du jakingo zeri buruz doan.

Irakurtzen amaitzean, keinu bidez interpretatu beharko du istorioa irakurri duenak, eta besteak, berriz, istorioa asmatu beharko du.

Ea nola doan jolasa!

3. PUPU ETA LORE

Komiki hauek irakurtzeko, jolas hau proposatzen dizuegu:


Zuetariko batek irakurri beharko du komikia. Baina, irakurtzen ari delarik, “bar” silabarekin hasten den hitz bakoitzeko, eskuak jaso beharko ditu.

Irakurtzen amaitzean, hitz horiek berriz irakurriko ditu, eta bakoitzaren esanahia azaldu beharko dio besteari.

4. TIRITATXO

Tiritatxorekin, digestio aparatuen inguruan asko ikasiko duzue bi orri hauetan. Nola egin dezakezuen dibertigarriagoa irakurketa? Bada, bakoitzak, testu bat irakur dezake bere kasara, eta, ondo ulertzen duenean, irakurritako hori besteari azaldu diezaioke. Gibelaren inguruan irakurriko duzue gehienbat.

Beste aukera bat da, bion artean irakurtzea testutxoak, eta, amaitzean, irakurritako horretatik, ideia garrantzitsu bat helaraztea batek besteari.



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

5. MARTINBERTSO

Martin Bertsoren atalean, kulturetxe bat ageri da irudian. Zer egin dezakezuen? Gauza asko bururaten zaizkigu, baina, kultur etxe batek izan eta eskain ditzakeen aukerak ezagutze aldera, zera egin dezakezue: marrazkiari begiratu 5-10 minutuz, eta, minutu horiek pasatakoan, ikusi dituzuen ekintzak eta abar zerrendatu, txandaka.


Amaitzean, zerrendaturiko ekintza horietatik, gogokoen duzuen helaraziko diozue elkarri.

Eta, jolasari bukaeraxoa emateko, zuen herriko kulturetxean dauden ekintzekin konparatuko dituzue.

6. BARATZE NATURALA

Karakola ez omen da Barearekin ondo portatu... Zer egin dion jakiteko, komikia irakurri beharko duzue lehenik eta behin. Nahi duzuen modura irakur dezakezue. Interesatzen zaiguna zera da, irakurri osteko gogoeta jolasa. Eta, horretarako, galdera hauei eman beharko diezue erantzuna:

- Zer egin du gaizki Karakolak?
- Egingo zenuke zuk horrelakorik?
- Eta, horrelakorik egingo balizute, azkenean, barkamen eske etorritz gero, barkatuko zenuke?
- Zerk uste duzu eramaten gaituela horrelako jokaerak hartzera?



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

7. HAUR KANTAK

Haur kanta elkarrekin abes dezakezue. Kasu honetan, beldur doinua sar diezaiokezue abestiari, eta, horretarako, noizean behin ahotsa altxatu, apalago abestu... Kontrasteak sartu!

Abestia laburra denez, memoriaz ere ikas dezakezue. Ikasirik duzuelarik, kendu argiak, jarri ispilu aurrean, eta kanta abes dezakezue.

8. PIRRITX, PORROTX ET AMARIMOTOTS

Testu polit hau irakurtzeko, oraingoan, puntuazio marketan zentratuko gara. Puntuazio marken artean, kometan eta puntuetan, konkretuki.

Eta zer egin beharko duzuen? Bada, bai koma eta bai puntuen aurrean aurkitzen zaren bakoitzean, puntuazio horiek nabarmendu egin beharko dituzue. Alegia, koma baten aurrean aurkitzen zaren bakoitzean geldialdia eginez eta puntu baten aurrean zaudetenean geldialdi luzea eginez.

Ea ba nola doan proba hau!



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

9. EUSKAL HERRIKO ANIMALIA

Informazio pila aurkituko duzue animalia eder honen inguruan. Nola irakur dezakegun informazioa interesgarriagoa egiteko?

Aukera bat haxe izan daiteke:

- Batek, testutxoen galdera egin dezake, eta besteak, erantzuna irakurri gabe, bururatzen zaiona edo uste duena erantzun. Eta horrela testu guztiekin.


Beste aukera bat litzateke justu alderantzizkoa egitea. Alegia, batek testua irakurriko du, eta besteak, testu horri legokiokeen galdera asmatu.

Gozatu eta ikasi, ikasi asko animalia zoragarri honen inguruan!

10. iRRiA ALDIZKARIA

Irria aldizkariaren inguruan hitz egiten duen testutxo zoragarri hau denok irakurri beharreko zerbait dela esango genuke. Hala ere, dakizuen bezala, milaka modu edo era daude testuak haurrari eskaintzeko.

Nola murgildu testu honetan? Gure proposamena da, zuk zeuk irakurtzea testua haurrari, eta, amaitzean, haurrari galdetzea zein ideia garrantzitsurekin gelditu den.



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

10. FILOSOFO TXIKIAK

Hemen ere, barkamenarekin loturiko testuan barrena, gure filosofoek gaiaren inguruan gogoeta egitera garamatzate.

Guk zer egingo genukeen? Komikiaren izenburua batek eta besteak irakurri, eta, irudiz eta marrazkiz baliatuz, gertaturikoa imajinatu eta asmatzen saiatu.

Ondoren, elkarrekin irakur dezakezue komikia, eta batak besteari, gertaturikoaren inguruan galderak egin, komentatu eta gogoeta egin.

11. TXOKO TXIKI KUTTUNA


Bertso hauetan, barkamenaren inguruan hitz egiten da. Hitz eder askoak erabiltzen dituzte, gai honen alderdi ugariak deskribatu eta azaltzeko.

Zera egin dezakezue: bertso guztiak elkarrekin irakurri, eta, amaitzean, gogokoen duzuen aukeratu eta bertsoari marrazki bat dedikatu. Marrazkiak, beraz, aukeratu duzuen bertsoarekin izan beharko du lotura.

Marrazteaz gozatu! Gozatu marrazten!

12. MARIKALANBRE

Marikalanbre eta amonaren testuan, zerbait sortu eta zerbait egin dute. Zuek ere, bi emakume horiek egin dutena egin dezakezue! Beraz, irakurri adi testua, eta, pausoak ondo barneraturik dituzuenean, ekin lanari!



**ZERTARAKO BALIO
DU BARKAMENA
ESKATZEAK?**

13. LARGABISTA

Testu honetan, “barkatu, sentitzen du...” hitzak erabiltzen dituzte, behin eta berriz! Zergatik izango ote?

Testua irakurtzea baino gehiago (izan ere, testu gutxi baitaukagu komikian), gure proposamena zera da, irudiei begiraturik, istorioa imajinatzea.

14. MARIMATRAKAK

Testu hau haurrari utziko diogu lasai irakurtzen. Bitartean, zu, jar zaitetz beste zerbaitetan, eta esaiozu, irakurtzen amaitzen duenean, istorioa ezagutzea eta entzutea gustatuko litzaizukeela.

Orduan, animatu bera testua bakarrik irakurtzera, eta ondoren, istorioa zuri kontatu diezazula!

15. MUNDUAK GUZTIONTZAT BEHARKO LUKE

Testu honetan, Mindara elkarteari buruz jakingo dugu. Haurra irakurketara gerturatzeko, esaiozu gauza berri eta baliagarri asko ikasiko dituela testu honetan aurkituko duen informazioarekin.

Animatu, lehenik eta behin, Mindararen inguruan hitz egiten duen eskuineko testua irakurtzera, eta, amaitzean, erabaki komikia nola irakurriko duzuen eta ekin irakurketari!

Bukatzean, elkartearen inguruan begiratu dezakezue Interneten; informatu, eta gauza interesgarrienekin gelditu.